



FA/OF	70	2015
-------	----	------

Foru diputatuak agindu hau eman du gaur:

El diputado foral, con fecha de hoy, ha dictado la siguiente orden foral:

"Gipuzkoako Lurralde Historikoan, mendeko pertsonak, bai adinekoak, bai desgaituak eta bai buruko gaixotasunak dituztenak, egoitzetan eta eguneko zentroetan sartzeko bidea honela dago araututa: adineko pertsonen kasuan, 2002ko apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretua, Gipuzkoako adineko pertsona ezinduentzako lekuak eskatu eta emateko arauak ematen dituena, hartzen da oinarritzat; buruko gaixotasuna duten pertsonen kasuan, 2002ko azaroaren 5eko 57/2002 Foru Dekretua, gizarte bazterketa edo/eta mendekotasuneko egoeran dauden pertsonen baliabide soziosanitarioak eskuratzeko erregimena arautzen duena; eta azkenik, desgaitasunak dituzten pertsonen kasuan, araudi berezirik ez dagoenez, 20/2002 Foru Dekretua erabiltzen da.

"En el Territorio Histórico de Gipuzkoa la regulación del acceso a los servicios residenciales y de centro de día para personas en situación de dependencia, tanto personas mayores, como personas con discapacidad, como personas con enfermedad mental, se realiza de la siguiente manera: en el caso de las personas mayores, mediante el Decreto Foral 20/2002, de 30 de abril, por el que se regula el régimen de acceso y adjudicación de plazas para personas mayores dependientes de Gipuzkoa; en el caso de las personas con enfermedad mental, mediante el Decreto Foral 57/2002, de 5 de noviembre por el que se regula el régimen de acceso a recursos sociosanitarios de las personas en situación de exclusión social y/o dependencia y, por último, en el caso de las personas con discapacidad al carecer de normativa específica se utiliza por analogía el referido Decreto Foral 20/2002.

Beraz, araudia ez dago erabat osatua eta egokitu beharra dago; are gehiago, kontuan izanda azken zortzi urteetan lege aldaketa garrantzitsuak gertatu direla eta horrek eragin nabarmena izan duela oro har gizarte zerbitzuen esparruan, eta bereziki mendekotasuna duten pertsonen artapenari eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideei dagokienez.

Se trata de una regulación incompleta que requiere la necesaria adaptación normativa; máxime teniendo en cuenta que en los últimos ocho años se han producido importantes cambios legislativos que han repercutido de forma notable en el ámbito tanto de los servicios sociales en general como de la atención a la dependencia y los derechos de las personas con discapacidad en particular.

Foru dekretu hau eskubide subjektibo hori gauzatzeko baldintzak mugatu eta finkatzeko beharrari erantzutera dator.

El presente decreto foral pretende dar respuesta a esta necesidad de acotar y fijar las condiciones en que se va a ejercer este derecho subjetivo.

Proposatutako foru dekretuaren bidez, mendeko pertsonak (adinekoak, desgaituak edo buruko gaixotasunak dituztenak) egoitzetan eta eguneko zentroetan sartzeko arauak ezarri nahi dira.

Con el decreto foral propuesto se pretende regular el acceso de las personas en situación de dependencia (tanto mayores como con discapacidad o con enfermedad mental) a los servicios residenciales y de centro de día.

Egoitzetan eta eguneko zentroetan sartzeko prozesuaz hitz egiten dugunean, eskaera, itxaron zerrendarako onarpena, plaza hartzea eta egonaldia bera sartzen dira. Beraz, ez dira sartzen mendekotasun egoeraren balorazioa, egokitasun txostena eta Banakako Arreta Plana egitea.

Se entiende que el acceso incluye la solicitud, la admisión en lista de espera, la incorporación a la plaza, y la estancia propiamente dicha. No incluye, por lo tanto, la valoración de la situación de dependencia, ni la emisión del informe de idoneidad, ni la elaboración del Plan de Atención Personalizada.

Foru dekretu honen xedea da sarbidea arautzea mendekotasunaz arduratzen diren zentro guztientzat Gipuzkoan sustatzen ari den Desgaitasunaren Arreta ereduarekin parekatzeko.

Pretende este decreto foral propuesto alinear la regulación del acceso con el Modelo de Atención a la Discapacidad que se está impulsando en el Territorio Histórico de Gipuzkoa para el conjunto de los centros de atención a la dependencia.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

Horregatik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauko 70. artikularen 1. ataleko b) letran ezarritakoari jarraituz,

Por todo ello, de acuerdo con lo previsto en el artículo 70, apartado 1, letra b) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa,

Hori dela eta,

En su virtud,

XEDATZEN DUT

DISPONGO

Lehenengo.- Agintzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauko 70. artikulua araututako prozeduraren hasiera, eta onespena ematea foru dekretuaren proiektuaren testuari, zeinaren bidez arautzen baita Gipuzkoan mendeko pertsonak egoitzetan eta eguneko zentroetan sartzeko bidea.

Primero.- Ordenar la iniciación del procedimiento regulado en el artículo 70 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y prestar conformidad al texto del proyecto de decreto foral por el que se regula el régimen de acceso a los servicios residenciales y de centro de día para personas en situación de dependencia en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Bigarren.- Kasu bakoitzean dagozkion entzunaldi eta kontsulta izapideak egitea.

Segundo.- Realizar los trámites de audiencia y consulta que procedan en su caso.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuak foru agindu honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua Administrazioarekiko Auzietako Donostiako epaitegietan, argitaratzearen biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Esta orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

Hala ere, aukera dute horren aurretik berraztertzeo hautazko errekurtsua aurkezteko foru diputatu honi, argitaratzearen biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke."

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este diputado foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente."

Jakin dezazun eta ondorio egokiak izan ditzan adierazten dizut hori.

Lo que le traslado para su conocimiento y efectos.

Donostia-San Sebastián, 2015 FEB: - 3
Idazkari teknikoa, La Secretaria Técnica,
Sin./ Fdo.: M^a Socorro EQUIZA EQUIZA



GIPUZKOAKO LURRALDE
HISTORIKOAN MENDEKOTASUN
EGOERAN DAUDEN
PERTSONENTZAKO EGOITZA
ZERBITZUETARAKO ETA EGUNEKO
ZENTROETARAKO SARRERA
ARAUTZEA XEDE DUEN FORU
DEKRETU PROIEKTUAREN GENERO
TALKAREN TXOSTENA

Genero talkaren txosten hau eman da otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 6. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoan, eta uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren 70. artikuluan, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoan ezarritakoa betetzeko.

1.- TXOSTENAREN OINARRIAK ETA XEDEA

Euskal Autonomia Erkidegoko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 6. artikuluan, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoan, ezarritakoaren arabera, foru administrazioei dagokie foru legediaren jarraipena egitea eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren arabera legedi hori ezartzen dela zaintzea; eta uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren 70. artikuluan, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioaren inguruan, ezarritakoaren arabera, izaera orokorreko araudi xedapenen aurreproiektuak lantzeko prozeduran foru arauan ezarritako neurrien genero talkaren txostena gehitu beharko da eranskin bezala.

Gizarte Politikako Departamentuak txosten hau bidali dio Gipuzkoako Foru Aldundiaren egiaztapen organismoari,

INFORME DE IMPACTO DE GÉNERO
DEL PROYECTO DE DECRETO FORAL
POR EL QUE SE REGULA EL RÉGIMEN
DE ACCESO A LOS SERVICIOS
RESIDENCIALES Y DE CENTRO DE DÍA
PARA PERSONAS EN SITUACIÓN DE
DEPENDENCIA EN EL TERRITORIO
HISTÓRICO DE GIPUZKOA

El presente informe de impacto de género se emite a los efectos de cumplimentar lo dispuesto en el artículo 6 de la Ley 4/2005 de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres, de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en el artículo 70 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

1.- FUNDAMENTACIÓN Y OBJETO DEL INFORME

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 6 de la Ley 4/2005 de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres, de la Comunidad Autónoma del País Vasco, corresponde a las administraciones forales el seguimiento de la legislación foral y de su aplicación de acuerdo con el principio de igualdad entre mujeres y hombres, y en función de lo dispuesto en el artículo 70 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Guipúzcoa, en el procedimiento de elaboración de los anteproyectos de disposiciones normativas de carácter general deberá acompañarse como anexo un informe del impacto de género de las medidas establecidas en la misma.

El Departamento de Política Social remite el presente informe con el objeto de evaluar el impacto de género del proyecto de



Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako egoitza zerbitzuetarako eta eguneko zentroetarako sarrera araubidea arautzea xede duen foru dekretu proiektuaren genero talka ebaluatzeko. Helburua da egiaztapen organismoak dagozkion oharrik ematea eta txostenaren organo igoerle honi bidaltzea aldaketak egiteko, behar izanez gero, araua onartu ondoren genero talka positiboa bermatu ahal izateko.

2.- GENEROAREN EGOKITASUNA IDENTIFIKATZEA

Arauaren xedea: Foru dekretu proiektuaren helburua da Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako egoitza zerbitzuetarako eta eguneko zentroetarako sarrera araubidea arautzea.

Hartzaileak: Arauaren hartzaileak pertsona fisikoak dira.

Hartzaileengan duen eragina: Arauak bai zuzenean, bai zeharka eragiten die emakume zein gizonei, eta horiek baliabideak lortu eta kontrolatzeko gaitasunean, pertsonen hainbat baliabideetara heltzeko sarbidea arautzen baitu (kasu honetan plazak). Beraz, eragin zuzena eta berehalakoa dauka emakume eta gizonek gizartean duten posizioan.

Beraz:

Arau hori: **EGOKIA** da genero berdintasunaren printzipioa barne hartzeko.

3.- GENERO TALKAREN BALORAZIOA

A) Antzemandako desberdintasunen deskribapena eta identifikazioa: Foru dekretu proiektuaren xedearan eta foru arauak arautzen duen edukiaren arabera, arauak eragiten dien emakumeen eta gizonen

decreto foral por el que por el que se regula el régimen de acceso a los servicios residenciales y de centro de día para personas en situación de dependencia en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, al organismo de verificación de la Diputación Foral de Gipuzkoa, con la finalidad de que éste realice las observaciones pertinentes y las remita al presente órgano emisor del informe para su modificación, si fuera necesario, con objeto de garantizar un impacto de género positivo tras la aprobación de la norma.

2.- IDENTIFICACIÓN DE LA PERTINENCIA DE GÉNERO

Objeto de la norma: El objeto del proyecto de decreto foral es regular el régimen de acceso a los servicios residenciales y de centro de día para personas en situación de dependencia en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Grupo destinatario: La norma tiene como grupo destinatario final a personas físicas.

Incidencia en el grupo destinatario: La norma afecta directamente a mujeres y hombres, respecto al acceso o/y control de los recursos, puesto que regula el acceso de las personas a determinados recursos (en este caso plazas). Por tanto, tienen un efecto directo e inmediato sobre la situación y posición de mujeres y hombres en la sociedad.

Por tanto:

La norma resulta ser: **PERTINENTE** a la integración del principio de igualdad de género.

3.- VALORACIÓN DEL IMPACTO DE GÉNERO

A) Descripción e identificación de las desigualdades detectadas: En función del objeto del proyecto de decreto foral y del contenido regulado por el mismo, a continuación se ofrecen los siguientes datos,



egoeraren eta mailaren inguruko datu hauek ematen dira:

Erabiltzaileak:

- Mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonentzako egoitzetan, erabiltzaileen %69,0 emakumeak dira eta %31,0 gizonak. 65 urtetik gorako eta mendekotasun egoeran dagoen populazioa kontuan hartuta, emakumeen estaldura tasa %26,9koa da, eta %27,5 gizonena.

- Mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonentzako eguneko zentroetan, erabiltzaileen %71,8 emakumeak dira eta %28,2 gizonak. 65 urtetik gorako eta mendekotasun egoeran dagoen populazioa kontuan hartuta, emakumeen estaldura tasa %11,4koa da, eta %10,4 gizonena.

- Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzetan, erabiltzaileen %42,7 emakumeak dira eta %57,3 gizonak. 18 eta 64 urte bitarteko eta mendekotasun egoeran dagoen populazioa kontuan hartuta, emakumeen estaldura tasa %12,76koa da, eta %13,36 gizonena.

- Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroetan, erabiltzaileen %48,0 emakumeak dira eta %52,0 gizonak. 18 eta 64 urte bitarteko eta mendekotasun egoeran dagoen populazioa kontuan hartuta, emakumeen estaldura tasa %12,92koa da, eta %10,84 gizonena.

- Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitzetan, erabiltzaileen %30,1 emakumeak dira eta %69,9 gizonak. 18 eta 64 urte bitarteko eta diagnostiko printzipaltzat buruko gaixotasuna eta mendekotasun egoeran dagoen populazioa kontuan hartuta, emakumeen estaldura tasa %18,96koa da, eta %22,07 gizonena. Buruko gaixotasunen artean horrelako baliabideak eskatu ohi dituzten diagnostikoak soilik kontuan izanda (trastorno eskizofrenikoa eta trastorno bipolarra) estaldura tasak honakoa dira: %30,40 emakumeengan eta %32,52 gizonengan.

- Buruko gaixotasuna duten

sobre la situación y posición de las mujeres y los hombres sobre quienes incide la norma:

Personas usuarias:

- En el caso de las residencias para personas mayores dependientes, el 69,0% de las personas usuarias son mujeres, y el 31,0% restante hombres. Si tomamos como referencia la población mayor de 65 años en situación de dependencia, la tasa de cobertura es del 26,9% en las mujeres y del 27,5% en los hombres.

- En el caso de los centros de día para personas mayores dependientes, las personas usuarias son en un 71,8% mujeres, y un 28,2% hombres. Si tomamos como referencia la población mayor de 65 años en situación de dependencia, la tasa de cobertura es del 11,4% en las mujeres y del 10,4% en los hombres.

- En el caso de los centros residenciales para personas con discapacidad, el 42,7% de las personas usuarias son mujeres, y el 57,3% restante hombres. Si tomamos como referencia la población de entre 18 y 64 años en situación de dependencia, la tasa de cobertura es del 12,76% en las mujeres y del 13,36% en los hombres.

- En el caso de los centros de día para personas con discapacidad, el 48,0% de las personas usuarias son mujeres, y el 52,0% restante hombres. Si tomamos como referencia la población de entre 18 y 64 años en situación de dependencia, la tasa de cobertura es del 12,92% en las mujeres y del 10,84% en los hombres.

- En el caso de los centros residenciales para personas con enfermedad mental, el 30,1% de las personas usuarias son mujeres, y el 69,9% restante hombres. Si tomamos como referencia la población de entre 18 y 64 años en situación de dependencia, y con un diagnóstico principal de enfermedad mental, la tasa de cobertura es del 18,96% en las mujeres y del 22,07% en los hombres. Si únicamente se toman en cuenta los diagnósticos de enfermedad mental que habitualmente demanda este tipo de servicios (trastorno esquizofrénico y trastorno bipolar), las tasas de



pertsonentzako eguneko zentroetan, erabiltzaileen %32,2 emakumeak dira eta %67,8 gizonak. 18 eta 64 urte bitarteko eta diagnostiko printzipaltzat buruko gaixotasuna eta mendekotasun egoeran dagoen populazioa kontuan hartuta, emakumeen estaldura tasa %23,08koa da, eta %24,41 gizonena. Buruko gaixotasunen artean horrelako baliabideak eskatu ohi dituzten diagnostikoak soilik kontuan izanda (trastorno eskizofrenikoa eta trastorno bipolarra) estaldura tasak honakoa dira: %37,00 emakumeengan eta %35,98 gizonengan.

Beraz, orokorrean **bi sexuen arteko oreka** dagoela nabarmendu daiteke, estaldura tasak aintzat hartuta.

Indarkeria matxista egoerak:

Araua egiterakoan bereziki kontuan izan da indarkeria matxista egoera bat pairatzen duten mendekotasun egoeran dauden emakumeek, edo beraiek zaintzen dituzten mendekotasun egoeran dauden pertsonak, egoitza plazetara lehentasunezko sarbidea izateko aukera.

B) Antzemandako desberdintasunei arauak ematen dien erantzuna:

Esan bezala, estaldura tasak antzekoak izani kez da desberdintasun egoerarik antzematen.

Gizarte premiako edo gizarte larrialdiko egoeretarako prozedura arautzen duen 20. artikuluan, egoera berezi bat aurreikusi da, prozedura horren bidez plazara sartzeko genero zein etxeko indarkeriazko egoeretan, bai emakumeak baliabidea behar duenean, bai bere ardurapean duen mendeko pertsonak behar duenean

cobertura se sitúan en 30,40% para las mujeres y 32,52% para los hombres.

- En el caso de los centros de día para personas con enfermedad mental, el 32,2% de las personas usuarias son mujeres, y el 67,8% restante hombres. Si tomamos como referencia la población de entre 18 y 64 años en situación de dependencia, y con un diagnóstico principal de enfermedad mental, la tasa de cobertura es del 23,08% en las mujeres y del 24,41% en los hombres. Si únicamente se toman en cuenta los diagnósticos de enfermedad mental que habitualmente demanda este tipo de servicios (trastorno esquizofrénico y trastorno bipolar), las tasas de cobertura se sitúan en 37,00% para las mujeres y 35,98% para los hombres.

Por tanto, en términos generales se observa **un equilibrio entre ambos sexos** en términos de tasas de cobertura.

Situaciones de violencia machista:

Un aspecto que se ha tenido en cuenta en la elaboración de la norma es la posibilidad de que las mujeres en situación de dependencia que afrontan situaciones de violencia machista, o las personas dependientes atendidas por mujeres que enfrentan situaciones de violencia machista puedan tener un acceso prioritario a las plazas residenciales.

B) Grado en que la norma da respuesta a las desigualdades detectadas:

Como ya se ha descrito, no se observa situación de desigualdad en cuanto al acceso a los servicios, ya que las tasas de cobertura son similares.

Se ha incorporado en el artículo 20, que regula el acceso en situaciones de emergencia o urgencia social, un supuesto específico por el que podrán acceder mediante dicho procedimiento las personas que sean víctimas de violencia doméstica por razón de sexo, tanto cuando sea la propia mujer quien requiera el acceso al recurso, como la cuando lo sea la persona en situación de dependencia que esté a



4.- **ARAUAK EGUNGO**
DESBERDINTASUNEI ZE MAILATAN
ERANTZUTEN DIEN

Talkaren Balorazioa: Foru dekretu proiektuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egiten du, larrialdi prozeduraren bidez, bereziki sexu arrazoiengatik indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktima diren pertsonen plazara sartzeko aukera ematen dielako, bai emakumeak baliabidea behar duenean, bai bere ardurapean duen mendeko pertsonak behar duenean.

Era berean, erabilitako hizkuntzari dagokionez eta otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18. artikuluan, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoan, ezarritakoaren arabera, foru dekretu proiektu honek berariaz aipatzen du genero gramatikal femeninoa maskulinoa aipatzen den bakoitzean.

Foru Arau aurreproiektua eta Txosten hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren Organismo Egiaztatzaileari bidaltzen zaizkio, onartu eta argitaratu baino lehen.

su cargo.

4.- **GRADO EN QUE LA NORMA DA**
RESPUESTA A LAS DESIGUALDADES
EXISTENTES

Valoración del Impacto: El proyecto de decreto foral menciona favorece la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres al incluir expresamente la posibilidad de acceso mediante procedimiento de urgencia social a las personas que sean víctimas de violencia doméstica por razón de sexo, tanto cuando sea la propia mujer quien requiera el acceso al recurso, como la cuando lo sea la persona en situación de dependencia que esté a su cargo.

Asimismo, en lo que se refiere al lenguaje utilizado y de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 18 de la ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres, el presente proyecto de decreto foral menciona de forma expresa el género gramatical femenino en cada alusión que hace al masculino.

Se da traslado del proyecto de decreto foral y de este Informe al Organismo Verificador de la Diputación Foral de Gipuzkoa como paso previo a su aprobación y publicación.

Donostian, 2015eko martxoaren 11an
San Sebastián, 11 de marzo de 2015

Fdo.: Ander Zapiain Usandizaga
Ezinduen eta Desgaituen laguntzako zerbitzuburua

PROIEKTUA

/2015 FORU DEKRETUA, xxxxaren xxkoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako egoitza zerbitzuetarako eta eguneko zentroetarako sarrera araubidea arautzekoa.

AURKIBIDEA

ZIOEN AZALPENA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.
2. artikulua.- Aplikazio eremua.
3. artikulua. Zerbitzuen definizio eta sailkapena.

II. KAPITULUA

HARTZAILEAK

4. artikulua. Zerbitzuetarako eskubidea duten pertsonak.
5. artikulua. Zerbitzuak eskuratzeko baldintza orokorrak.
6. artikulua. Zerbitzu bakoitzerako baldintza zehatzak.
7. artikulua. Zerbitzuetarako eskubidearen murrizketak.
8. artikulua. Eskubidea galtzea.
9. artikulua. Erabiltzaileen eskubidea aldi baterako etetea.
10. artikulua. Eskatzailearen adostasuna.

III. KAPITULUA

SARTZEKO PROZEDURA

1. ATALA.

Prozedura arrunta.

1. azpiatala. Prozeduraren hasiera.
11. artikulua. Eskaerak aurkeztea.
12. artikulua. Hasierako dokumentazioa.
13. artikulua. Espedientea betetzea.
2. azpiatala. Espedientea bideratzea.
14. artikulua. Eskaera egiaztatzea eta zuzentzea.
15. artikulua. Espedientea baloratzea.
3. azpiatala. Espedientea erabakitzea.
16. artikulua. Espedientea erabakitzea.
17. artikulua. Atzera egitea eta uko egitea.
4. azpiatala. Inpugnazioak.
18. artikulua. Administrazio helegiteak.

2. ATALA.

Sartzeko larrialdiko prozedura.

PROYECTO

DECRETO FORAL /2015, de xxx de xx, por el que se regula el régimen de acceso a los servicios residenciales y de centro de día para personas en situación de dependencia en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

INDICE

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

CAPITULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto.

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

Artículo 3. Definición y clasificación de los servicios.

CAPITULO II

PERSONAS DESTINATARIAS

Artículo 4. Personas con derecho de acceso a los servicios.

Artículo 5. Requisitos generales de acceso.

Artículo 6. Requisitos específicos para cada uno de los servicios.

Artículo 7. Restricciones al derecho de acceso.

Artículo 8. Pérdida del derecho.

Artículo 9. Suspensión temporal del derecho de las personas usuarias.

Artículo 10. Consentimiento de la persona solicitante.

CAPITULO III

PROCEDIMIENTO DE ACCESO

SECCIÓN 1ª.

Procedimiento ordinario.

Subsección 1.ª Inicio del procedimiento.

Artículo 11. Presentación de solicitudes.

Artículo 12. Documentación inicial.

Artículo 13. Cumplimentación del expediente.

Subsección 2ª.- Instrucción del expediente.

Artículo 14. Verificación y subsanación de la solicitud.

Artículo 15. Valoración del expediente.

Subsección 3ª.- Resolución del expediente.

Artículo 16. Resolución del expediente.

Artículo 17. Desistimiento y renunciaciones.

Subsección 4ª.- Impugnaciones.

Artículo 18. Recursos administrativos

SECCIÓN 2ª.

Procedimiento urgente de acceso.

19. artikulua. Sartzeko larrialdiko prozedura.
3. ATALA.
Gizarte premiako edo gizarte larrialdiko egoeretarako prozedura.
20. artikulua. Gizarte premiako edo gizarte larrialdiko egoeretarako prozedura.
21. artikulua. Esku-hartzea.
22. artikulua. Behin-behinekotasuna.
IV. KAPITULUA.
LEKU KUDEAKETA
23. artikulua. Itxarote-zerrenda.
24. artikulua. Lekuak esleitzeko irizpideak.
25. artikulua. Eskainitako lekuak ez onartzea kudeatzeko irizpideak.
26. artikulua. Zerbitzu bakoitzaren lurralde esparrua.
V. KAPITULUA
ZENTRO BATEAN SARTZEA GAUZATZEA
27. artikulua. Sartzeko modalitateak.
1. ATALA
Sarrerak.
28. artikulua. Sartzeko data eta epea.
29. artikulua. Sarrera gauzatzea.
30. artikulua. Egokitze epea.
31. artikulua. Erabiltzailearen ustezko desgaitasuna, sartu eta gerokoa.
32. artikulua. Leku erreserba.
2. ATALA.
Lekualdatzeak.
33. artikulua. Lekualdatzearen definizioa.
34. artikulua. Lekualdatze eskaerak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zentroen sarean.
35. artikulua. Lekualdatzearen arrazoiak.
36. artikulua. Lekualdatze espedientearen erabakitzea.
VI. KAPITULUA.
ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK
37. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak.
38. artikulua. Zerbitzu eskatzaileen eta erabiltzaileen betebeharrak.
39. artikulua. Prezio publikoa ordaintzeko obligazioa.
XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA
LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA
BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA
HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA
XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA
AMAIERAKO LEHEN XEDAPENA
AMAIERAKO BIGARREN XEDAPENA

Artículo 19. Procedimiento urgente de acceso
SECCIÓN 3ª.
Procedimiento en situaciones de emergencia social o urgencia social.
Artículo 20. Acceso en situaciones de emergencia social o urgencia social.
Artículo 21. Intervención.
Artículo 22. Temporalidad.
CAPITULO IV.
LA GESTION DE LAS PLAZAS
Artículo 23. La lista de espera.
Artículo 24. Criterios de adjudicación de las plazas
Artículo 25. Criterios de gestión de no aceptación de las plazas ofertadas.
Artículo 26. Ámbito Territorial de cada servicio:
CAPITULO V
INCORPORACION EFECTIVA A UN CENTRO
Artículo 27. Modalidades de incorporación
SECCIÓN 1ª
Los ingresos.
Artículo 28. Fecha y plazo de ingreso.
Artículo 29. Formalización del ingreso.
Artículo 30. Periodo de adaptación.
Artículo 31. Presunta incapacidad de la persona usuaria posterior al ingreso.
Artículo 32. Reserva de plaza.
SECCIÓN 2ª.
Traslados.
Artículo 33. Definición de traslado.
Artículo 34. Solicitudes de traslado en la red de centros del Territorio Histórico de Gipuzkoa.
Artículo 35. Causas de traslado.
Artículo 36. Resolución del expediente de traslado.
CAPITULO VI.
DERECHOS Y OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS USUARIAS
Artículo 37. Derechos de las personas usuarias.
Artículo 38. Obligaciones de las personas solicitantes y usuarias de los servicios.
Artículo 39. Obligación de pago de precio público.
DISPOSICION ADICIONAL UNICA
DISPOSICION TRANSITORIA PRIMERA
DISPOSICION TRANSITORIA SEGUNDA
DISPOSICION TRANSITORIA TERCERA
DISPOSICION DEROGATORIA UNICA
DISPOSICION FINAL PRIMERA
DISPOSICION FINAL SEGUNDA
ANEXOS

ERANSKINAK

I. eranskina.- Zerbitzu bakoitzaren lurralde esparrua mugatzeko zonakatzea.

II. eranskina.- Itxarote-zerrendaren baremazioa.

Anexo I.- Zonificación a efectos de la delimitación del ámbito territorial de cada servicio.

Anexo II.- Baremación de la lista de espera.

ZIOEN AZALPENA

Une honetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako - adineko pertsonak, desgaitasuna duten pertsonak zein buruko gaitza duten pertsonak izan- egoitza zerbitzuetarako eta eguneko zentroetarako sarrera arautzeko bideak honakoak dira: adineko pertsonen kasuan, 20/2002 Foru Dekretua, apirilaren 30ekoa, Gipuzkoako adineko pertsona ezinduentzako lekuak eskatu eta emateko arauak ematen dituena; buruko gaitza duten pertsonen kasuan, 57/2002 Foru Dekretua, azaroaren 5ekoa, gizartean baztertu edo marjinatu egoeran daudenak gizarte eta osasun alorreko baliabideetara iristeko araudia ezartzen duena; eta, azkenik, desgaitasuna duten pertsonen kasuan, araudi espezifikorik ez dagoenez, aipatu 20/2002 Foru Dekretua erabiltzen da, analogiagatik.

Beraz, erregulazio osatugabe bat daukagu, eta arau egokitzapena behar du horrek; are gehiago kontuan hartzen badugu ezen azken zortzi urtean lege aldaketa garrantzitsuak izan direla eta horiek eragin pisuzkoa izan dutela bai gizarte zerbitzuen esparruan oro har, bai mendekotasunaren arretaren eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideen esparruan bereziki. Ildo honetatik, azpimarratzekoa da hainbat arau testu onartu eta indarrean sartu direla, honakoak: 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa; 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzkoa; eta 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta pertsona horiek gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bateratua onartzekoa. Horiez gain, adierazi behar da espainiar estatuak 2007ko martxoan eta azaroan sinatu eta berretsi zuela desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioa

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

En estos momentos en el Territorio Histórico de Gipuzkoa la regulación del acceso a los servicios residenciales y de centro de día para personas en situación de dependencia, tanto personas mayores, como personas con discapacidad, como personas con enfermedad mental, se realiza de la siguiente manera: en el caso de las personas mayores, mediante el Decreto Foral 20/2002, de 30 de abril, por el que se regula el régimen de acceso y adjudicación de plazas para personas mayores dependientes de Gipuzkoa; en el caso de las personas con enfermedad mental, mediante el Decreto Foral 57/2002, de 5 de noviembre por el que se regula el régimen de acceso a recursos sociosanitarios de las personas en situación de exclusión social y/o dependencia y, por último, en el caso de las personas con discapacidad al carecer de normativa específica se utiliza por analogía el referido Decreto Foral 20/2002.

Nos encontramos pues ante una regulación incompleta que requiere la necesaria adaptación normativa; máxime teniendo en cuenta que en los últimos ocho años se han producido importantes cambios legislativos que han repercutido de forma notable en el ámbito tanto de los servicios sociales en general como de la atención a la dependencia y los derechos de las personas con discapacidad en particular. En este sentido cabe destacar la aprobación y entrada en vigor de los siguientes textos normativos: La Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de Autonomía personal y Atención a las personas en situación de dependencia; la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, de Euskadi; la firma y ratificación por parte del Estado Español en marzo y noviembre de 2007 de la Convención sobre los derechos de las personas con discapacidad, (Nueva York, 13 de diciembre de 2006), y el Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley General de derechos de las personas con

(New York, 2006ko abenduaren 13a).

Aipatutako 39/2006 Legeak sortu egiten du Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistema deitzen duena, eta horren osagarria den zerbitzu katalogoa definitzen du; zerbitzu horien artean daude adinekoentzako eguneko zentroak, 65 urtez azpikoentzako eguneko zentroak, mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako egoitzak eta mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako arreta zentroak, dauden desgaitasun motak jasotzearen.

12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, gizarte zerbitzuen euskal sistema sortzen du, eta 6. artikuluan bere lehentasunen artean identifikatzen du pertsonen autonomia sustatzea eta mendetasun egoerek pertsonen eta familiei eragiten dizkieten beharrezkoak aurrea hartu eta erantzutea. Era berean, 22. artikuluan definitzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa, eta horien artean sartzen ditu adinduentzako egoitza zentroak, ahalmen urrituentzako egoitza zentroak, buruko gaitza duten pertsonentzako egoitza zentroak, eta autonomia mugatuak eragindako premiei erantzuteko eguneko zerbitzuak edo zentroak. Horiek guztiak bigarren mailako arretako gizarte zerbitzu gisa egituratzen dira, eta foru aldundiek dute atxikia horiek hornitzeko eskumena.

Bestetik, 12/2008 Legeak, 2. artikuluan, gizarte zerbitzuetarako eskubide subjektiboa aitortzen du; hau da, ezartzen du ezen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioez eta zerbitzuez baliatu ahal izatea eskubide subjektiboa izango dela, betiere sistema horretaz baliatzeko ezarritako baldintza orokorren eta prestazio edo zerbitzu bakoitzaz baliatzeko araututako baldintza berezien barruan.

Hau da, araudi berriak sendotu egin du lehendik bazen eskumen atxikipen bat, are garbiago eginez eta eskubide subjektibo izaera emanaz gainera horri.

Eskubide subjektibo aipatua baliatu ahal izateko baldintzak mugatu eta finkatu beharri erantzuna

discapacidad y de su inclusión social.

La referida Ley 39/2006 crea lo que denomina el Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia, y define el catálogo de servicios que lo constituyen, entre los que se encuentran los Centros de Día para mayores, los Centros de Día para menores de 65 años, las Residencias para personas mayores en situación de dependencia y los Centros de atención a personas en situación de dependencia, en razón de los distintos tipos de discapacidad.

La Ley 12/2008, de Servicios Sociales, por su parte, crea el Sistema Vasco de Servicios Sociales, identificando en su artículo 6 como una de sus finalidades la de Promover la autonomía personal y prevenir y atender las necesidades personales y familiares derivadas de la dependencia. Asimismo, en su artículo 22 define el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, entre los que incluye los Centros residenciales para personas mayores, los Centros residenciales para personas con discapacidad, los Centros residenciales para personas con enfermedad mental, y los Servicios o centros de día para atender necesidades derivadas de limitaciones en la autonomía. Todos ellos se estructuran como servicios sociales de atención secundaria, y su provisión es competencialmente atribuida a las diputaciones forales.

Por otro lado, también la Ley 12/2008, en su artículo 2 reconoce el derecho subjetivo a los servicios sociales; es decir, establece que el acceso a las prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales se configura como un derecho subjetivo, dentro del marco de los requisitos generales de acceso al mencionado sistema y de los requisitos de acceso específicos que se regulen para cada prestación o servicio.

Es decir, la nueva normativa ha venido a reforzar una atribución competencial que antes existía, haciéndola todavía más nítida, y confiriéndole el carácter de derecho subjetivo.

El presente decreto foral pretende dar respuesta a esta necesidad de acotar y fijar las condiciones en

ematea da foru dekretu honen helburua.

Arau aldaketez gain, azpimarratzekoa da Gipuzkoako Lurralde Historikoak egituratu egin duela bere esparruan, bereziki desgaitasuna duten pertsonen alorrean, abangoardiakotzat har daitezkeen erakundeek kudeatzen dituzten zentroen sare bat. Eta horrek bultzaturik lurralde historikoan pixkanaka-pixkanaka hedatuz joan da arreta eredu bat, oinarrizko osagai dituela honakoak: laguntzen paradigma eta eredua, erdigunetzat pertsona duen plangintza, bizikaltatearen kontzeptu eta konstruktua eta beronen neurriak, jarrera-laguntza positiboa, eta eskubideekiko errespetua eta eskubideen sustapena.

Dena den, aipatu behar da eredu honek kokapen argi eta zehatza duela desgaitasuna (eta buruko gaitza) duten pertsonen eskubideak aitortzeko araudian, zehatzago esanda New Yorkeko Konbentzioan eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Lege Orokorraren Testu Bateratuan.

Logikoa denez, pertsonen eredu horretara egokitzen diren zerbitzuetara iritsi eta zerbitzuak baliatu ahal izateak, gauza zeharo oinarritzakoa bera, bat etorri behar du ereduarekin berarekin, eta hark dituen printzipio berberen ildotik jo.

Lege funtsezko bietara itzuliz (39/2006 Legea eta 12/2008 Legea alegia), eta horien bien sintesia eginez, esan genezake ezen, bultzatzen duten arreta eta esku-hartze ereduaren konbinazio gisa, zerbitzu eta prestazio orokorrak eta, bereziki, foru dekretu honen gai diren zerbitzuak eskatzeko bideak prozesu bat jarraitu behar duela, eta horretan hainbat gauza bermatu behar direla, honakoak:

1.- Eskatzailearen mendekotasun egoeraren balorazioa eta, horrenbestez, horretatik ateratzen den mendekotasun graduari dagozkion zerbitzu eta prestazioetarako eskubidea aitortzea.

2.- Kasuari egokitutako esku-hartze baten diseinua, Arreta Pertsonalizatuko Plan batean oinarriturik (12/2008 Legearen arabera) edo Banakako Arreta Programa batean oinarriturik (39/2006 Legearen

que se va a ejercer este derecho subjetivo.

Al margen de los cambios normativos, también conviene destacar que el Territorio Histórico de Gipuzkoa se ha dotado de una red de centros gestionados por entidades que podrían calificarse como de vanguardia en su ámbito, en especial en el campo de las personas con discapacidad. Lo que ha impulsado a la progresiva extensión dentro del territorio histórico de un modelo de la atención cuyos componentes básicos son: el Paradigma y Modelo de Apoyos, la Planificación Centrada en la Persona, el concepto y constructo de Calidad de Vida y sus dimensiones, el Apoyo Conductual Positivo y el respeto y la promoción de los Derechos.

No obstante, cabe señalar que este Modelo está claramente enmarcado en la normativa de reconocimiento de derechos de las personas con discapacidad (y enfermedad mental), y más concretamente las referidas Convención de Nueva York y Texto Refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad.

Lógicamente, un aspecto tan básico como el relativo al acceso de las personas a los servicios que responden a ese Modelo, debe estar también alineado con el mismo y responder a los mismos principios.

Volviendo a las dos trascendentales leyes (Ley 39/2006 y Ley 12/2008), y realizando una síntesis de ambas, podría afirmarse que como combinación del modelo de atención e intervención que propugnan, el acceso a los servicios y prestaciones en general, y a los servicios objeto del presente decreto foral en particular, deben corresponderse con un proceso, en el que se deben garantizar:

1.- La valoración de la situación de dependencia de la persona solicitante y el consiguiente reconocimiento del derecho a los servicios y prestaciones correspondientes al grado de dependencia reconocido.

2.- El diseño de una intervención adecuada al caso, sobre la base de un Plan de Atención Personalizada (según la Ley 12/2008) o un Programa Individual de Atención (según la Ley

arabera); esku-hartze hori, arreta ibilbideen koherentzia eta jarraitasuna bermatzearren, erabiltzailearen partaidetzaz prestatu beharko da eta, hala dagokionean, erabiltzailea ordezkatzeko duen familiaren edo tutoretza entitatearen partaidetzaz, eta aldizkako balorazio eta berrikuste mekanismoak ere jaso beharko ditu, plana pertsonaren beharren bilakaerari egokitzen zaion egiaztatzearen. Plan horretan bermatu egingo da, gainera, esku-hartzearen diziplinartekotasuna, eta prebentzioaren ikuspegitik joko da. Gainera, programa hori aldatu ahal izango da pertsona interesatuak eta beronen ordezkari legalek eskatuz gero.

3.- Zerbitzurako sarrera, 39/2006 Legearen 14.6 artikuluan aurreikusten den lehentasun-ordenari jarraiki; horren arabera, mendekotasun gradu handieneko pertsonak lehentasuna izango dute eta, gradu berekoen artean, eskatzailearen ahalmen ekonomikoa hartuko da aintzat. Hau da, prozesuak argi eta garbi bereizitako hiru prozedura izango ditu osagai: mendekotasunaren balorazioa, esku-hartze planaren diseinua, eta baliabiderako sarrera.

Mendekotasuna baloratzeko eta zerbitzu eta prestazioetarako eskubidea aitortzeko prozedura foru eskumenaren esparruan sartzen da, 12/2008 Legearen arabera. Alabaina substantibotasun propioa du, eta horrenbestez berariazko eta besteetatik bereiziriko erregulazioa behar du.

Esku-hartze plana diseinatzeko prozedura, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman itxuratuta dagoenaren arabera, udal eskumeneko oinarritzko gizarte zerbitzuen gainean datza nagusiki. Egia da, halaber, planak diziplinartekoa izan behar duela eta hori prestatzeko unean jaso egin behar dela foru gizarte zerbitzuen iritzia eta partaidetza -batez ere kasu honetan, Foru Aldundiak berak emandako egokitasun txostena behar baita-, baina begibistakoa da, era berean, planak ezinbestez izan behar dituen pertsonalizazioa eta hurbiltasuna bakar-bakarrik udal gizarte zerbitzuetatik bermaditekeela. Beraz, prozedura hau erregulatzea ez dagokio Gipuzkoako Foru Aldundiari.

39/2006), que, al objeto de garantizar la coherencia y la continuidad de los itinerarios de atención, deberá elaborarse con la participación de la persona usuaria y, en su caso, de su familia o entidad tutelar que le represente, y deberá incluir mecanismos de evaluación y revisión periódica que permitan verificar la adecuación del plan a la evolución de las necesidades de la persona. En este plan, además, se garantizará el carácter interdisciplinar de la intervención e incorporará un enfoque preventivo. Además este programa podrá ser variado a instancia de la persona interesada y de sus representantes legales.

3.- El acceso al servicio, respetando la prelación prevista en el artículo 14.6 de la Ley 39/2006, por la que tendrá prioridad las personas de mayor grado de dependencia y, a igual grado, por la capacidad económica de la persona solicitante. Es decir, un proceso que se compone de 3 procedimientos claramente diferenciados: la valoración de dependencia, el diseño del plan de intervención, y el acceso al recurso.

El procedimiento de valoración de dependencia y de reconocimiento del derecho a los servicios y prestaciones forma parte del ámbito de competencia foral, según la Ley 12/2008. Sin embargo posee su propia sustantividad, merecedora de una regulación específica y diferenciada del resto.

El procedimiento de diseño del plan de intervención, tal y como se configura el Sistema Vasco de Servicios Sociales, recae principalmente sobre los Servicios Sociales de Base, de competencia municipal. Bien es cierto que dado el carácter interdisciplinar que debe impregnarlo, en su elaboración, la opinión y participación de los servicios sociales forales debe estar presente, — especialmente en este caso, donde se requiere informe de idoneidad emitido por la propia Diputación Foral—, pero resulta evidente que la personalización y proximidad que deben presidirlo sólo puede ser garantizada desde los servicios sociales municipales. Por lo tanto, no es a la Diputación Foral de Gipuzkoa a quien corresponde la regulación de este procedimiento.

Beste kontu bat da hirugarren prozedura, sarrerari berari dagokiona alegia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumen esparruaren barnean kokatua argi eta garbi, eta foru dekretu honen xede dena bera.

2. Aurreko balizkoan aurreikusten diren kasuetan ikusiz gero pertsona babesgabetasun egoeran dagoela ez duelako erabakiak hartzen lagundu diezaiokeen seniderik, edo senideek ez dutelako behar bezala betetzen pertsona haren eskubideak eta pertsona bera babesteko eginkizuna, zerbitzuaren zuzendaritzak edo, hala dagokionean, Gizarte Politikako Departamentuak berak egoeraren berri emango die dagokion lehen auzialdiko epaitegiari eta ministerio fiskalari, hain zuzen egoki iritziz gero beharrezko neurriak har ditzaten, Prozedura Zibilarren urtarilaren 7ko 1/2000 Legearen 757.2 artikuluan aurreikusten diren ondorioetarako.

El Departamento de Política Social, tras estudiar las alegaciones, emitirá la resolución pertinente, proponiendo:

- La confirmación del ingreso o bien
- La pérdida de la condición de persona usuaria por inadaptación a las características o al funcionamiento del centro, así como el recurso alternativo que se propone.
- La propuesta de traslado a otro centro.

3. Una vez finalizado el periodo de adaptación el centro deberá definir, junto con la persona atendida, o en su caso, la persona de referencia el Plan de Atención Individual.

Artículo 31. Presunta incapacidad de la persona usuaria posterior al ingreso.

1. Si con posterioridad al ingreso en un servicio, la Dirección del mismo o el Departamento de Política Social considere que es posible que concurra en la persona usuaria una falta de capacidad para la toma de decisiones que le conciernen, notificará tal circunstancia a su familiar de referencia para que se declare guardador/a de hecho y asista a la persona en la toma de dichas decisiones velando por la defensa de sus derechos y por su protección.

2. Si, en los casos previstos en el supuesto anterior, se observara que la persona se encuentra en desamparo por carecer de familiares que puedan asistirle en la toma de decisiones o por observarse en estos últimos un inadecuado cumplimiento o un incumplimiento del deber de velar por la defensa de sus derechos y la protección de la persona, la Dirección del servicio o, en su caso, el Departamento de Política Social notificará la situación al Juzgado de Primera Instancia e Instrucción que corresponda y al Ministerio Fiscal, con el fin de que, si lo estiman pertinente, se adopten las medidas a los efectos previstos en el artículo 757.2 de la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

32. artikulua. Leku erreserba.

1. Gizarte Politikako Departamentuaren sare publikoko eta sare hitzartuko zentroetako erabiltzaileek lekua erreserbatzeko eskubidea izango dute absentzia aldietan, kasu hauetan:

a) Borondatezko absentziagatiko erreserba.

Absentzia zentroari aditzera eman bazaio gutxienez zazpi egun natural lehenago, lekuaren erreserba pertsona zentroan ez dagoen lehen egunetik beretik aplikatuko da.

Aurretiko abisurik gabe gertatzen denean, zazpigarren egunetik aurrera aplikatuko da.

Erreserba gutxienez zazpi egun naturalerako izango da, eta gehieneko epeak honakoak izango dira:

- 45 egun urte naturaleko, adinduentzako zerbitzuetan.
- 60 zerbitzu prestazio egun, urte naturaleko, desgaitasuna eta buruko gaitza duten pertsonentzako zerbitzuetan.

b) Ospitaleratze, osasun arazo edo antzeko beste arrazoren batengatiko erreserba.

Egoera hori zentroari aditzera eman bazaio gutxienez zazpi egun natural lehenago, lekuaren erreserba pertsona zentroan ez dagoen lehen egunetik beretik aplikatuko da.

Ustekabekoa edo larrialdi baten eraginez gertatua bada, zazpigarren egunetik aurrera aplikatuko da.

Azken kasu honetan, lekua erreserbatzeko eskubidea gutxienez zazpi egun naturalerako izango da, eta gehieneko laurogeita hamar egun naturalerako, eta epe hau luzatu ahal izango da, hori justifikatzen duen aurretiazko txosten batez.

2. ATALA. Lekualdatzeak.

33. artikulua. Lekualdatzearen definizioa.

Artículo 32. Reserva de plaza.

1. Las personas usuarias de los centros de la red pública y concertada del Departamento de Política Social tendrán derecho a reserva de plaza durante los periodos de ausencia en las siguientes condiciones:

a) Reserva por ausencia voluntaria.

Sí ésta ha sido comunicada al centro con una antelación mínima de siete días naturales la reserva de plaza se aplicará desde el primer día de ausencia en el centro.

Cuando se produzca sin aviso previo se aplicará a partir del séptimo día.

La reserva será de aplicación para un periodo mínimo de siete días naturales y un periodo máximo de:

- 45 días por año natural en los servicios para personas mayores,
- 60 días sobre los días de prestación del servicio por año natural en los servicios para personas con discapacidad y enfermedad mental.

b) Reserva por hospitalización, problemas de salud o por otro motivo de índole similar.

Sí ésta ha sido comunicada al centro con una antelación mínima de siete días naturales, la reserva de plaza se aplicará desde el primer día de ausencia.

Sí se produce de forma fortuita o de urgencia, se aplicará a partir del séptimo día.

En este supuesto el derecho de reserva de plaza será por un periodo mínimo de siete días naturales y un máximo de noventa días naturales, que podrán ser prorrogados previo informe justificativo.

SECCIÓN 2ª. Traslados.

Artículo 33. Definición de traslado.

1. Foru dekretu honen ondorioetarako, dekretu honen xede den Gipuzkoako Foru Aldundiaren sare publiko edo sare hitzartuko leku edo plaza batean artatzen ari diren pertsonak egiten dituzten zentroz aldatzeko eskaerak izango dira lekualdatzeak.

2. Lekualdatzeak eskatu ahal izango dira ondoko zerbitzuotan sartutako zentroen artean, honela:

a) 3. artikuluko 1., 2. eta 3. puntuetan definitutako bizileku eta egoitza zerbitzuen sarean sartutako zentroen artean.

b) 3.4 artikuluko a), b). eta c) letratan definitutako bizileku eta egoitza zerbitzuen sarean sartutako zentroen artean.

34. artikulua. Lekualdatze eskaerak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zentroen sarean.

1. Zentroz aldatzea eskatu ahal izango dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren sare publiko edo hitzartuko leku batean artatzen ari diren eta xede-zerbitzu bakoitzari dagokionez 6. artikuluan ezartzen diren baldintza zehatzak betetzen dituzten pertsonak.

2. Lekualdatze eskaerak erabiltzaileak berak edo honen lege ordezkariak, borondatezko ordezkariak edo izatezko zaintzaileak egin ahal izango dituzte, pertsona artatzen ari den zerbitzuan, oinarritzko gizarte zerbitzuetan edo Gizarte Politikako Departamentuan.

Zentroetako zuzendaritzek ere sustatu ahal izango dute ofiziozko lekualdatzea, erabiltzailearen zertzeladak kontuan harturik pentsatuz gero sareko beste zentro batean arreta egokiagoa eman ahal izango zaiola. Horrelako kasuetan, zentroak justifikazio txosten bat prestatu eta Gizarte Politikako Departamentuari aurkeztuko dio.

Era berean, Gizarte Politikako Departamentuak ofiziozko lekualdatzea sustatu ahal izango du, pertsona interesatuari entzun ondoren, adina edo arreta beharretan izandako alaketaren bat kontuan harturik edo lekuz aldatzeko aukera egoki egiten duten aparteko beste zertzelada batzuk

1. A efectos de este decreto foral se considerarán traslados las solicitudes de cambio de centro de las personas que están siendo atendidas en una plaza de la red pública o concertada de la Diputación Foral de Gipuzkoa objeto de este decreto foral.

2. Los traslados se podrán solicitar entre los centros integrados en los siguientes servicios:

a) Entre los centros integrados en la red de servicios de alojamiento y residenciales definidos en el artículo: 3.1, 3.2 y 3.3.

b) Entre los centros integrados en la red de servicios de centro de día definidos en las letras a), b) y c) del artículo 3.4.

Artículo 34. Solicitudes de traslado en la red de centros del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

1. Podrán solicitar el traslado de centro las personas que estén siendo atendidas en una plaza la red pública o concertada de la Diputación Foral de Gipuzkoa y reúnan los requisitos específicos establecidos en el artículo 6 para cada uno de los servicios de destino.

2. Las solicitudes de traslado podrán realizarse tanto por la persona usuaria o su representante legal, voluntario o persona guardadora de hecho en el servicio donde se encuentre atendida la persona, en los Servicios Sociales de Base, o el Departamento de Política Social.

Las direcciones de los centros también podrán promover el traslado de oficio cuando, atendiendo a las circunstancias de la persona usuaria, llegara a presumirse más adecuada su atención en otro centro de la red. En este caso, el centro elaborará un informe justificativo que elevará al Departamento de Política Social.

Asimismo, el Departamento de Política Social podrá promover traslado de oficio, una vez oída la persona interesada, cuando atendiendo a la edad o a una modificación en las necesidades de atención, o a otras circunstancias excepcionales que técnicamente aconsejen dicho traslado,

direla-eta ikusiz gero foru sareko beste zentro bateko arreta hobeto egokituko zaiela pertsonaren zertzelada aipatu horiei.

3. Lekualdatze eskaera bakoitzari erantsi egin beharko zaio arreta emandako pertsonaren azkeneko Banakako Arreta Plana, eskatutako zerbitzuan sartzeko eskatzen den dokumentazioarekin batera.

35. artikulua. Lekualdatzearen arrazoiak.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuak hartutako erabaki baten bidez zerbitzu batean sartutako erabiltzaile orok eskubidea izango du zerbitzu mota bera eskaintzen duen beste zentro baterako lekualdatze eskaera aurkezteko.

2. Beste zentro baterako lekualdatzea eskatu edo sustatu ahal izateko arrazoiak honakoak izango dira:

- a) Familia zentroan biltzea.
- b) Eskatutako zerbitzua egokiagoa izatea pertsonaren edota inguruaren beharretarako arreta ematera begira.
- c) Jatorrizko herrira aldatzea.
- d) Behar bezala justifikatutako beste zertzelada berezi batzuk.

3. Pertsona interesatuak eskaturik lekuz aldatu ondoren, ezingo da beste lekualdatzerik baimendu aurrekotik urtebete igaro arte, behar bezala justifikatu eta Gizarte Politikako Departamentuak onartutako aparteko zertzeladak direnean izan ezik.

36. artikulua. Lekualdatze espedientea erabakitzea.

1. Lekualdatze eskaeraren balorazioa egin eta, hala dagokionean, beharrezko txostenak jaso ondoren, Gizarte Politikako Departamentuan eskumena duen zuzendaritzak erabakia hartuko du.

2. Erabakia eman eta interesatuari eta pertsona artatzen ari den zentroari jakinarazi behar zaie, Gizarte Politikako Departamentuan eskaera

llegara a resultar más adecuada su asistencia en otro centro de la red foral mas apto para ofrecer la atención adecuada a dichas circunstancias.

3. A cada una de las solicitudes de traslado se deberá adjuntar el último Plan de Atención Individual de la persona atendida y la documentación necesaria exigida para el acceso al servicio solicitado.

Artículo 35. Causas de traslado.

1. Toda persona usuaria de un servicio cuyo ingreso haya sido resuelto por resolución del Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa, tendrá derecho a presentar una solicitud de traslado a otro centro que preste el mismo tipo de servicio.

2. Se podrá solicitar o promover el traslado a otro centro por:

- a) Reagrupamiento familiar en el centro.
- b) Mayor idoneidad del servicio solicitado para la atención a las necesidades de la persona y/o entorno.
- c) Traslado al municipio de procedencia.
- d) Otras circunstancias especiales debidamente justificadas.

3. Una vez realizado el traslado a instancia de la persona interesada, no podrá autorizarse un nuevo traslado hasta que transcurra un año desde el anterior, salvo que concurran razones excepcionales debidamente justificadas y aprobadas por el Departamento de Política Social.

Artículo 36. Resolución del expediente de traslado.

1, Efectuada la valoración de la solicitud de traslado, u en su caso, recibidos los informes preceptivos, la Dirección competente del Departamento de Política Social, dictará la resolución correspondiente.

2. La resolución deberá dictarse y notificarse a la persona interesada y al centro en donde está atendida la personas en el plazo de dos meses

jasotzen denetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

desde la recepción de la solicitud en el Departamento de Política Social.

3. Erabakiak gutxieneko eduki bat izango du, honakoa:

3. La Resolución tendrá como mínimo el siguiente contenido:

- Eskatutako zerbitzua ematen edo ukatzen den.
- Erabakia zerbitzua emateko bada, adieraziko du kasuan kasuko pertsona itxarote-zerrendan sartu dela, lekua esleitzeko.
- Erabakia zerbitzua ukatzeko bada, ukatze horren arrazoia adieraziko ditu.

- Indicará la concesión o la denegación del servicio solicitado
- Si la resolución es de concesión señalará que la persona queda incorporada a la lista de espera, para asignación de plaza.
- Si la resolución es de denegación expresará el motivo o motivos de la misma.

4. Erabakia hartu eta jakinarazteko gehienezko hiru hilabeteko epea igarotzen bada berariazko erabakirik hartzeke, eskaera administrazioaren isiltasunez ezetsi dela ulertuko da. Administrazioaren legezko obligazioa da, hala ere, erabakia hartzea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, 42.1 artikuluan xedatzen duenarekin bat.

4. Transcurrido el plazo máximo de tres meses para dictar y notificar la resolución sin que se haya adoptado resolución expresa, la solicitud de ingreso se entenderá desestimada por silencio administrativo, sin perjuicio de la obligación legal de la administración de resolver, de acuerdo en lo dispuesto en el artículo 42.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

5. Eguneko zentroetako zerbitzuetan, itxarote-zerrenda orokorreko sarrera bakoitzeko, lekualdatzeagatiko sarrera bat tartekatuko da., eskaera-data kontuan hartua.

5. En los servicios de centros de día se intercalará un ingreso por traslado por cada ingreso de la lista de espera general, atendiendo a la fecha de solicitud.

6. Egoitza zerbitzuetan, itxarote-zerrenda orokorreko bi sarrerako, lekualdatzeagatiko sarrera bat tartekatuko da, eskaera-data kontuan hartua.

6. En los servicios residenciales se intercalará un ingreso de traslado por cada dos ingresos de la lista de espera general, atendiendo a la fecha de solicitud.

VI. KAPITULUA. ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

37. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak.

Gizarte Politikako Departamentuko sare publikoaren zerbitzuetako erabiltzaileek eskubidea izango dute zerbitzu bakoitzari dagokionez hitzarmen, kontratu eta zerbitzu katalogoetan definitutako prestazioak eta, oro har, Gizarte

CAPITULO VI. DERECHOS Y OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS USUARIAS

Artículo 37. Derechos de las personas usuarias.

Las personas usuarias de los servicios de la red pública del Departamento de Política Social tendrán derecho a recibir las prestaciones establecidas en los convenios, contratos y

Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak adierazitako guztiak jasotzeko.

catálogos de servicios definidos para cada uno de los servicios y en general, todos aquellos señalados en la Ley de 12/2008, de 5 de diciembre de Servicios Sociales.

38. artikulua. Zerbitzu eskatzaileen eta erabiltzaileen betebeharrak.

Artículo 38. Obligaciones de las personas solicitantes y usuarias de los servicios.

1. Dekretu honen xede diren sare publikoko zerbitzuak eskatzen eta erabiltzen dituzten pertsonen obligazioak izango dira, oro har, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak adierazitako guztiak, eta, bereziki, zerbitzu bakoitzaren barne erregimeneko erregelamenduan jasoak.

1. Las obligaciones de las personas solicitantes y usuarias de los servicios de la red pública objeto de este decreto serán en general, todas aquellas señaladas en la ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, y en particular, las incluidas en los Reglamentos de Régimen Interior de cada uno de los servicios.

2. Era berean, eta bereziki, zerbitzu eskatzaileen eta erabiltzaileen betekizunak honakoak izango dira:

2. Asimismo y con carácter específico, las personas solicitantes y usuarias de los servicios estarán obligadas a:

a) Zerbitzua behar bezala eta egoki emateko behar diren datu guztiak zuzen ematea. Datu horiek egiazkoak izatearen erantzukizuna ere beraiei dagokie.

a) Facilitar correctamente todos los datos necesarios para la concesión y correcta prestación del servicio, así como a responsabilizarse de la veracidad de los mismos.

b) Gizarte Politikako Departamentuari aditzera ematea bere zertzelada pertsonaletan, elkarbizitza-gunearenetan eta ekonomia-ondarezkoetan gertatutako aldaketa oro, zerbitzu prestazioaren baldintzetan eraginik izan dezaketenean.

b) Comunicar al Departamento de Política Social cualquier variación en sus circunstancias personales, del núcleo de convivencia y económico-patrimoniales que pueden afectar a las condiciones de prestación del servicio.

c) Gizarte Politikako Departamentuari baimena ematea, eskatzaile eta erabiltzaileen egoera ekonomiko eta ondarezkoa, egoera soziala eta osasun egoera egiaztatzeko beharrezko kontsultak egin ditzan. Kontsulta horiek, zehazki, Ogasuneko Foru Departamentuari, finantza eta aurrezki entitateei, euskal osasun zerbitzu Osakidetza eta gizarte esku-hartzeko beste erakunde batzuei egin ahal izango zaizkie.

c) Autorizar al Departamento de Política Social para realizar las consultas que fueran necesarias para comprobar la situación económico-patrimonial, social y sanitaria de las personas solicitantes y usuarias. Concretamente al Departamento Foral de Hacienda, a las Entidades financieras y de ahorro, al Servicio Vasco de Salud -Osakidetza y a otras entidades de Intervención social.

d) Gizarte Politikako Departamentuari baimena ematea, datuak fitxategi informatizatuetan sartzeko eta estatistika-produkzioan, ikerkuntza zientifikoan eta Gizarte Politikako Departamentuaren beraren eginkizunetan erabili ahal izateko, betiere datu pertsonalen babesaren arloko legediak aurreikusten dituen baldintzetan.

d) Autorizar al Departamento de Política Social a que los datos se integren en ficheros informatizados y puedan ser utilizados con fines de producción estadística e investigación científica y para las funciones propias del departamento de Política Social en los términos previstos por la legislación de protección de datos de carácter personal.

39. artikulua. Prezio publikoa ordaintzeko obligazioa.

1. Sare publikoko zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonak dagokien ekarpen ekonomikoa egin beharko dute, hori arautzen duen foru araudi espezifikoan jasotako baldintzen arabera, edo, bestela, kasuan kasuko sarrera-erabakian ezarritakoaren arabera.

2. Finkatutako diru ekarpena ez ordaintzea gertatzen bada, Gipuzkoako Foru Aldundiak horretarako ezartzen den prozeduraren bidez kobratuko du sortzen den zorra.

3. Pertsona artatuta dagoen zerbitzuaren emaileari egingo zaio zuzenean ordainketa, dekretu hau eta gaiari buruzko bestelako arauak aplikatzearen indarrez dagokion zenbatekoaz.

Xedapen gehigarri bakarra.

Mendekotasun egoeran dagoen pertsonaren balorazio gradu espezifikoaren baldintzari, foru dekretu honetako 6. artikulua aipatzen duenari, dagokionez, aparteko kasu gisa zerbitzu hauetan sartu ahal izango dira eskatzen dena baino gradu baxuagoko balorazioa duten pertsonak, edo 0 gradua dutenak aitortuta, baldin eta eskumena duen zerbitzu teknikoak irizten badio erabiltzaileak zentro horietan garatzen diren laguntza programen eta arretaren onuradun izan daitezkeela.

Lehenengo xedapen iragankorra.

Foru dekretu hau aplikatuko zaie indarrean sartzen denetik aurrera egiten diren sarrera eta lekualdatze eskaera guztiei.

Bigarren xedapen iragankorra.

Foru dekretu hau ez zaie aplikatuko indarrean sartu aurretiko eskaerei, kasu horietan aurretiko araudira joko baita. Dena den, dekretu hau aplikatzea eskatu ahal izango dute, gehienez 12 hilabeteko epean.

Hirugarren xedapen iragankorra.

Artículo 39. Obligación de pago de precio público.

1. Las personas usuarias de los servicios de la red pública estarán obligadas al pago de la aportación económica correspondiente a las condiciones recogidas en la normativa foral específica que lo regule, o en su caso, en lo establecido en la resolución de ingreso correspondiente.

2. En el supuesto que se produzca algún impago de la aportación económica establecida, la Diputación Foral de Gipuzkoa procederá a cobrar la deuda generada mediante el procedimiento que se establezca para tal efecto.

3. El pago se realizará directamente al prestador del servicio en el que se encuentre atendida la persona, en la cuantía que le corresponda en virtud de la aplicación del presente decreto foral y normativas al respecto.

Disposición adicional única.

A los efectos del requisito del grado específico de valoración de la persona en situación de dependencia al que alude el artículo 6 del presente decreto foral, podrán excepcionalmente acceder a estos servicios las personas valoradas con grado menor al requerido o con grado 0 reconocido cuando, desde el servicio técnico competente, se considere que las personas usuarias puedan beneficiarse de los programas de apoyo y la atención que se prestan en estos centros.

Disposición transitoria primera.

Se aplicará el presente decreto foral a todas las solicitudes de acceso y de traslado posteriores a la entrada en vigor de este decreto foral.

Disposición transitoria segunda.

A las solicitudes anteriores a la entrada en vigor de este decreto foral no les será de aplicación el mismo, por lo que se regirán por la normativa anterior, si bien podrán solicitar su aplicación en el plazo máximo de 12 meses.

Disposición transitoria tercera.

II. eranskinean zehazten den itxarote-zerrendaren baremazioan jasotako balorazio sozialarengatiko puntuazioaren ondorioetarako, hasiera batean eranskin horretako B letran definitutako bertsioa aplikatuko da. Gizarte Politikako Departamentuak egokitu egingo du puntuazio hori 353/2013 Dekretuak, maiatzaren 28koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoak -EHAAn 2013ko ekainaren 26an argitaratua- jasotzen duen gizarte-diagnostikora, foru dekretu hau indarrean sartzen denetik urtebeteko epean.

Xedapen indargabetzaile bakarra

Hainbat foru dekretu indarririk gabe geratuko dira, honakoak:

- 20/2002 Foru Dekretua, apirilaren 30ekoa, Gipuzkoako adineko pertsona ezinduentzako lekuak eskatu eta emateko arauak ematen dituen, mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako sarrera erregimena arautzen duten artikuluei dagokienez; indarrean mantenduko dira erabiltzaileek egin behar duten ekarpen ekonomikoa arautzeari buruzko artikulua, harik eta Diputatuen Kontseiluak horretarako foru dekretu berri bat onartzen duen arte.

- 2002ko azaroaren 5eko 57/2002 Foru Dekretua, gizarteaz baztertu edo marjinatu egoeran daudenak gizarte eta osasun alorreko baliabideetara iristeko araudia ezartzen duena.

- Era berean, indarririk gabe geratzen da foru dekretu honetan xedatzen denaren kontra doan maila berdineko edo baxuagoko araudi oro.

Amaierako lehen xedapena.

Gizarte Politikako Departamentuko titularrari ahalmena ematen zaio, foru dekretu hau behar bezala garatu eta gauzatzeko beharrezko xedapen, ekintza eta aginduak eman ditzan.

Amaierako bigarren xedapena.

A efectos de la puntuación por la valoración social recogida en la baremación de la lista de espera especificada en el Anexo II, inicialmente será de aplicación la versión definida en la letra B de dicho anexo. El Departamento de Política Social adaptará esta puntuación al instrumento de diagnóstico social del Sistema Vasco de Servicios Sociales aprobado en el Decreto 353/2013, de 28 de mayo, de Ficha Social del Sistema Vasco de Servicios Sociales y del instrumento de diagnóstico social del Sistema Vasco de Servicios Sociales, publicado en el BOPV del 26 de junio de 2013, en el plazo de un año desde la entrada en vigor de este decreto foral.

Disposición derogatoria única

Quedan derogados los siguientes decretos forales:

- El Decreto Foral 20/2002 de 30 de abril por el que se regula el régimen de acceso adjudicación de plazas para personas mayores dependientes en Gipuzkoa, en lo que se refiere a los artículos que regulan el régimen de acceso para personas en situación de dependencia, manteniéndose en vigor los artículos relativos a la regulación de la aportación económica de las personas usuarias hasta que el Consejo de Gobierno Foral apruebe al efecto un nuevo decreto foral.

- El Decreto Foral 57/2002 de 5 de noviembre por el que se regula el régimen de acceso a los recursos sociosanitarios de la personas en situación de exclusión social y/ dependencia.

- Igualmente queda derogada cualquier normativa de igual o inferior rango que se oponga a lo dispuesto en el presente Decreto Foral.

Disposición final primera.

Se faculta a la persona titular del Departamento de Política Social para dictar cuantas disposiciones, actos e instrucciones sean necesarios para el desarrollo correcto y ejecución de este decreto foral.

Disposición final segunda.

Foru dekretu honek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera izango du eragina. El presente decreto foral entrará en vigor el día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

ERANSKINAK / ANEXOS

I. eranskina.- Zerbitzu bakoitzaren lurralde esparrua mugatzeko zonakatzea

Anexo I.- Zonificación a efectos de la delimitación del ámbito territorial de cada servicio

ZERBITZUA SERVICIO	ZERBITZU BAKOITZERAKO LURRALDE ESPARRU EGOKIAK, ZERBITZUARI LOTUTAKO PRESTAZIOETARA BEGIRA ÁMBITOS TERRITORIALES IDÓNEOS PARA CADA SERVICIO A EFECTOS DE PEVS		
	LURRALDE ESPARRUA ÁMBITO TERRITORIAL	UDALERRIAK ETA ESKUALDEAK MUNICIPIOS Y COMARCAS	
- Adinduentzako egoitza zentroak - Centros residenciales para personas mayores - Adinduentzako eguneko zerbitzu edo zentroak - Servicios o Centros de Día para personas mayores	Gizarte Zerbitzuen Arloa	BIDASOA	HONDARRIBIA, IRUN
		OARSOALDEA	ERRETERIA, LEZO, OIARTZUN, PASAIA
		DONOSTIA	DONOSTIA
		BURUNTZALDEA	ANDOAIN, ASTIGARRAGA, HERNANI, LASARTE-ORIA, URNIETA, USURBIL
		UROLA KOSTALDEA	AIA, GETARIA, ORIO, ZARAUTZ, ZUMAIA
		IRAURGI	AIZARNAZABAL, AZKOITIA, AZPEITIA, BEIZAMA, ERREZIL, ZESTOA
		DEBA KOSTA	DEBA, ELGOIBAR, MENDARO, MUTRIKU
	Área de Servicios Sociales	DEBA ERDIA	EIBAR, SORALUZE
		BERGARALDEA	ANTZUOLA, BERGARA, ELGETA
		LEINTZ IBARRA	ARETXABALETA, ARRASATE, ESKORIATZA, LEINTZ-GATZAGA, OÑATI
		UROLA GARAIA	EZKIO-ITSASO, LEGAZPI, URRETXU, ZUMARRAGA
		ORIA GARAIA	ALTZAGA, ARAMA, ATAUN, BEASAIN, GABIRIA, GAINZA, IDIAZABAL, ITSASONDO, LAZKAO, LEGORRETA, MUTILOA, OLABERRIA, ORDIZIA, ORMAIZTEGI, SEGURA, ZALDIBIA, ZEGAMA, ZERAIN
		TOLOSALDEA	ABALTZISKETA, ADUNA, ALBIZTUR, ALEGIA, ALKIZA, ALTZO, AMEZKETA, ANOETA, ASTEASU, BALIARRAIN, BELAUNTZA, BERASTEGI, BERROBI, BIDEGOIAN, ELDUAIN, GAZTELU, HERNIALDE, IBARRA, IKAZTEGIETA, IRURA, LARRAUL, LEABURU, LIZARTZA, ORENDAIN, OREXA, TOLOSA, VILLABONA, ZIZURKIL
- Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zerbitzu edo zentroak - Servicios o Centros de Día para personas con discapacidad - Buruko gaitza duten pertsonentzako eguneko zerbitzu edo zentroak - Servicios o Centros de Día para personas con enfermedad mental	Administrazio eskualdea	BIDASOA	HONDARRIBIA, IRUN
		DONOSTIALDEA	ANDOAIN, ASTIGARRAGA, DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, ERRETERIA, HERNANI, LASARTE-ORIA, LEZO, OIARTZUN, PASAIA, USURBIL, URNIETA
		UROLA KOSTA	AIA, AIZARNAZABAL, AZKOITIA, AZPEITIA, BEIZAMA, ERREZIL, GETARIA, ORIO, ZARAUTZ, ZESTOA, ZUMAIA,
		DEBA BEHEA	DEBA, EIBAR, ELGOIBAR, MENDARO, MUTRIKU, SORALUZE
		DEBA GARAIA	ANTZUOLA, ARETXABALETA, ARRASATE, BERGARA, ELGETA, ESKORIATZA, LEINTZ-GATZAGA, OÑATI
	Comarca administrativa	GOIERRI	ALTZAGA, ARAMA, ATAUN, BEASAIN, EZKIO-ITSASO, GABIRIA, GAINZA, IDIAZABAL, ITSASONDO, LAZKAO, LEGAZPI, LEGORRETA, MUTILOA, OLABERRIA, ORDIZIA, ORMAIZTEGI, SEGURA, URRETXU, ZALDIBIA, ZEGAMA, ZERAIN, ZUMARRAGA
		TOLOSALDEA	ABALTZISKETA, ADUNA, ALBIZTUR, ALEGIA, ALKIZA, ALTZO, AMEZKETA, ANOETA, ASTEASU, BALIARRAIN, BELAUNTZA, BERASTEGI, BERROBI, BIDEGOIAN, ELDUAIN, GAZTELU, HERNIALDE, IBARRA, IKAZTEGIETA, IRURA, LARRAUL, LEABURU, LIZARTZA, ORENDAIN, OREXA, TOLOSA, VILLABONA, ZIZURKIL

- Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroak - Centros residenciales para personas con discapacidad	Gizarte Zerbitzuen Sektorea	EKIALDEA ESTE	BIDASOA, DONOSTIALDEA
		MENDEBALDEA OESTE	DEBA BEHEA, DEBA GARAIA, GOIERRI, TOLOSALDEA, UROLA KOSTA
- Buruko gaitza duten pertsonentzako egoitza zentroak - Centros residenciales para personas con enfermedad mental	Sector de Servicios Sociales		

II. eranskina.- Itxarote-zerrendaren baremazioa.

A) AHALMEN EKONOMIKOA

Gehieneko puntuazioa 5 puntukoa izango da.

Adinduen egoitzak:

Kontuan hartuko da zerbitzu honetarako ezarritako gehieneko ekarpenaren zenbatekoari zenbat egunetan egin ahal izango dion aurre pertsonak, betiere mendekotasunaren arretarako zentroetako erabiltzaileek egin behar duten ekarpen ekonomikoa arautzeko indarrean dagoen araudiarekin bat.

Gehieneko ekarpenaren egun kop.	Puntuazioa
1.095 egun edo gehiago	1
821 eta 1.094 egun bitartean	2
547 eta 820 egun bitartean	3
273 eta 546 egun bitartean	4
283 egun baino gutxiago	5

Beste zerbitzuak:

Kontuan hartuko da zerbitzu honetarako ezarritako gehieneko ekarpenaren zenbateko portzentajeari egin ahal izango dion aurre pertsonak, betiere mendekotasunaren arretarako zentroetako erabiltzaileek egin behar duten ekarpen ekonomikoa arautzeko indarrean dagoen araudiarekin bat.

Gehieneko ekarpenaren portzentajea	Puntuazioa
% 100	1
% 75 eta % 99 bitartean	2
% 50 eta % 74 bitartean	3
% 25 eta % 49 bitartean	4
% 25 baino gutxiago	5

Anexo II.- Baremación de la lista de espera.

A) CAPACIDAD ECONOMICA

La puntuación máxima será de 5 puntos.

Centros residenciales de personas mayores:

Se tomará en cuenta el número de días en los que la persona podrá hacer frente al importe de la aportación máxima establecida para este servicio, conforme a la normativa foral vigente reguladora de la aportación económica de las personas usuarias de los centros de atención a la dependencia.

Nº de días de aportación máxima	Puntuación
1.095 ó más días	1
Entre 821 y 1.094 días	2
Entre 547 y 820 días	3
Entre 273 y 546 días	4
Menos de 283 días	5

Resto de servicios:

Se tomará en cuenta el porcentaje de la aportación máxima establecida para el servicio al que la persona podrá hacer frente, conforme a la normativa foral vigente reguladora de la aportación económica de las personas usuarias de los centros de atención a la dependencia.

Porcentaje de la aportación máxima	Puntuación
100%	1
Entre 75% y 99%	2
Entre 50% y 74%	3
Entre 25% y 49%	4
Menos del 25%	5

B) GIZARTE ETA FAMILI BALORAZIOA**ADINDUENTZAKO EGOITZA eta EGUNEKO ZENTROA**

Itemak	Puntuazioa
1. Gizarte interakzioa	10,0
2. Laguntza informalak etxean 2.1. Laguntza arloa 2.2. Borondatea 2.3. Zaintzailearen egoera 2.4. Laguntzaren zenbatekoa	40,0
3. Laguntza formalak etxean	40,0
4. Ingurua 4.1. Baldintzak 4.2. Etxeko giroa	20,0
5. Famili harremana	30,0
PUNTUAZIOA GUZTIRA	100,0

B) VALORACION SOCIO FAMILIAR**CENTRO RESIDENCIAL y CENTRO DE DIA PERSONAS MAYORES**

Ítems	Puntuación
1. Interacción Social	10,0
2. Apoyos Informales en domicilio 2.1. Área de ayuda 2.2. Voluntad 2.3. Estado cuidador/a 2.4. Cantidad ayuda	40,0
3. Apoyos Formales en domicilio	40,0
4. Entorno 4.1. Condiciones 4.2. Ambiente de la casa	20,0
5. Relación familiar	30,0
PUNTUACION TOTAL	100,0

EGOITZA ETA EGUNEKO ZENTROA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAT, ETA BURUKO GAITZA DUTEN PERTSONENTZAT

Itemak	Puntuazioa
1. Arreta pertsonalerako beharrak eta arretaren kalitatea 1.1. Autozaintza jarduerak 1.2. Etxeko bizimoduko jarduerak 1.3. Jarduera instrumentalak	15,0
2. Famili eta gizarte harremana 2.1. Elkarbizitza 2.2. Harremana 2.3. Zaintzailearen karga	15,0
3. Etxebizitzaren egoera 3.1. Erabilgarritasuna 3.2. Bizigarritasun baldintzak 3.3. Kokapena eta irisgarritasuna	15,0
PUNTUAZIOA GUZTIRA	45,0

CENTRO RESIDENCIAL Y CENTRO DE DIA PERSONAS CON DISCAPACIDAD, Y PERSONAS CON ENFERMEDAD MENTAL

Ítems	Puntuación
1. Necesidades y calidad de atención personal 1.1. Actividades de autocuidado 1.2. Actividades de vida doméstica 1.3. Actividades instrumentales	15,0
2. Relación familiar y social 2.1. Convivencia 2.2. Relación 2.3. Carga cuidador/a	15,0
3. Situación vivienda 3.1. Disponibilidad 3.2. Condiciones de habitabilidad 3.3. Ubicación y accesibilidad	15,0
PUNTUACION TOTAL	45,0



Gipuzkoako Foru Aldundia

Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

**GIZARTE POLITIKAKO
DEPARTAMENTUAREN
IDAZKARITZA TEKNIKOAREN
TXOSTENA**

**FORU DEKRETUA, GIPUZKOAKO
LURRALDE HISTORIKOAN
MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN
PERTSONAK EGOITZA-ZENTROAN ETA
EGUNEKO ZENTROAN SARTZEKO
ARAU BIDEA ERREGULATZEN DUENA**

Gipuzkoan mendekotasun egoeran dauden pertsonen kasuan, adinekoak, nahiz desgaitasuna edo gaixotasun mentala dutenak izan, gaur egun tramite hauek egin behar dira egoitza-zentroan eta eguneko zentroan sartzeko: adineko pertsonen kasuan, 2002ko apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretuak, Gipuzkoako adineko pertsona ezinduentzako lekuak eskatu eta emateko arauak ematen dituenak, xedatutakoa bete behar da; gaixotasun mentala duten pertsonen kasuan, 2002ko azaroaren 5eko 57/2002 Foru Dekretuak, gizarteaz baztertu edo marjinalatu egoeran daudenek gizarte eta osasun alorreko baliabideetara iristeko araudia ezartzen duenak, ezarritakoa jarraituko da; eta, azkenik, desgaitasunen bat duten pertsonen kasuan, ez dagoenez araudi espezifikorik, analogiaz, aipatutako 20/2002 Foru Dekretuak xedatutakoa aplikatuko da.

Foru dekretu honen bitartez aipatutako araudia bateratu nahi da eta koherentzia eman nahi zaio eta, horretarako, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonak egoitza-zentroan eta eguneko zentroan sartzeko sistema bakar bat ezarriko da.

Foru dekretu hori onartzeko prozedura Gizarte Politikako foru diputatuaren 2014ko otsailaren 3ko 72/2014 Foru Aginduari bitartez hasi zen; izan ere, foru agindu horrek agintzen zuena betez, hasiera eman behar zitzaion 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde

**INFORME DE LA SECRETARÍA TÉCNICA
DEL DEPARTAMENTO DE POLÍTICA
SOCIAL**

**DECRETO FORAL POR EL QUE SE
REGULA EL RÉGIMEN DE ACCESO A
LOS SERVICIOS RESIDENCIALES Y DE
CENTRO DE DÍA PARA PERSONAS EN
SITUACIÓN DE DEPENDENCIA EN EL
TERRITORIO HISTÓRICO DE
GIPUZKOA**

En el Territorio Histórico de Gipuzkoa la regulación del acceso a los servicios residenciales y de centro de día para personas en situación de dependencia, tanto personas mayores, como personas con discapacidad, como personas con enfermedad mental, se realiza en la actualidad de la siguiente manera: en el caso de las personas mayores, mediante el Decreto Foral 20/2002, de 30 de abril, por el que se regula el régimen de acceso y adjudicación de plazas para personas mayores dependientes de Gipuzkoa; en el caso de las personas con enfermedad mental, mediante el Decreto Foral 57/2002, de 5 de noviembre por el que se regula el régimen de acceso a recursos sociosanitarios de las personas en situación de exclusión social y/o dependencia y, por último, en el caso de las personas con discapacidad al carecer de normativa específica se utiliza por analogía el referido Decreto Foral 20/2002.

El presente decreto foral trata de unificar y dar coherencia a la normativa señalada para lo que establece un único sistema de acceso a los servicios residenciales y de centro de día destinados a personas en situación de dependencia del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

El procedimiento de aprobación del decreto foral fue iniciado por la Orden Foral 72/2014, de 3 de febrero del diputado foral de Política Social que ordenaba la iniciación del procedimiento regulado en el artículo 70 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización



Gipuzkoako Foru Aldundia

Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

Historikoaren Erakunde Antolaketari, Gobernuari eta Administrazioari buruzkoak, 70. artikuluan araututako prozedurari, eta, halaber, adostasuna eman behar zitzaion foru dekretuaren proiektuaren testuari, zeinaren bidez erregulatzen diren, alde batetik, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonak egoitzazentroan eta eguneko zentroan sartzeko araubidea eta, bestetik, kasuaren arabera, egin behar diren kontsulta eta audientzia tramiteak.

Izaera orokorreko xedapenak prestatzeko, 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketari, Gobernuari eta Administrazioari buruzkoak, 70. artikuluan aurreikusitako tramitea bete ondoren, Diputatuen Kontseiluak onartu egin behar du Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonak egoitzazentroan eta eguneko zentroan sartzeko araubidea erregulatzen duen foru dekretuaren zirriborroa.

Azkenik, genero talkaren txostena eman da otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 6. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoan, eta uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren 70.1 c) artikuluan, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoan ezarritakoa betetzeko.

Aldi berean, kontuan hartuta foru dekretuaren proiektu honen izaera, ez da behar Gipuzkoako Lurralde Historikoko Lege Aholkularitzako Batzordearen txostenik.

Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa y prestar conformidad al texto del proyecto de decreto foral por el que se regula el régimen de acceso a los servicios residenciales y de centro de día para personas en situación de dependencia en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, así como la realización de los trámites de audiencia y consulta que procedan en su caso.

Cumplido el trámite previsto por el artículo 70 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración el Territorio Histórico de Gipuzkoa para la elaboración de disposiciones de carácter general, el borrador de decreto foral por el que se regula el régimen de acceso a los servicios residenciales y de centro de día para personas en situación de dependencia en el Territorio Histórico de Gipuzkoa se propone sea aprobado por el Consejo de Gobierno Foral.

Por último, se ha emitido informe de impacto de género a los efectos de cumplimentar lo dispuesto en el artículo 6 de la Ley 4/2005 de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres, de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en el artículo 70.1 c) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Guipúzcoa.

Hay que señalar que dada la naturaleza del presente proyecto de decreto foral, no procede someterlo al dictamen de la Comisión Jurídica Asesora del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Donostian, 2015eko martxoaren 11n
San Sebastián, 11 de marzo de 2015

Idazkari teknikoa, / La Secretaria Técnica,
Sin./ Fdo.: M^a Socorro EQUIZA EQUIZA